

FUNTSEZKO BALIADIEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditugure enpresak.

Enpresa baten funtsezko baliabideak ondorengo kategoriatan sailkatu daitezke:

- **Baliabide fisikoak:** instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak...
- **Baliabide intelektualak:** marka, patenteak, egile-eskubideak...
- **Giza-baliabideak:** sormena, ezagutza, gaitasun komertziala...
- **Finantza-baliabideak:** eskudirua, kreditu lineak...



Enpresa batean lan egiterakoan garrantzitsua da baliabideak bakoitza bere motarekin sailkatzea, guk hori egin dugu eta hau da emaitza:

Baliabide Fisikoak: Gure enpresarako hainbat baliabide fisiko ditu, adibidez: Lokala, transporteak egiteko furgoneta, ordenagailuak, gure produktuak egiteko materialak...

Giza-Baliabideak: Adibidez Manex ona da diseinuak egiten, orduan bera izango da saltzen ditugun produktuak diseinatzen. Urko ona da gauzak saltzen, beraz bera izango da produktuari prezioak jartzen duena eta Markel ona da gidatzen, orduan bera izango da transportez arduratuko dena.

Finantza Baliabideak: Proiektu hau aurrera ateratzeko gure aurrezkiekin hasiko gera, baina Unicef-eri esker eta beraien diru laguntzagatik egingo dugun kolaborazioaren ondorioz proiektua aurrera ateratzen lagunduko digu.